


Euskal AEko industria-prezioak % 0,1 jaitsi ziren 2020ko uztailean, aurreko hilabetearekin alderatuta

2019ko uztailaren aldean, industria-prezioak % 3,8 jaitsi ziren

Euskal AEko industria-prezioak % 0,1 jaitsi ziren 2020ko uztailean aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Uztaileko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza jasotzen duena) -% 3,8koa izan zen.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen, 2020ko uztailean, hazkunderik handienak izan dituzten sektoreak izan direla *Kokeriak eta petrolioa fintzea* (% 3,2), *Erauzketa-industriak* (% 1,1) eta *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* zein *Garraio-materialaren fabrikazioa* (biak % 0,9ko hazkundearekin). Aitzitik, prezioetan sektore hauetan izan dira hilabete arteko beherakadarik handienak: *Metalurgia eta metalezko produktuak* % 1,1 jaitsi dira; *Energia elektrikoa, gasa, lurruna eta aire girotua*, % 1,0; eta *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza*, % 0,6.

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, aurreko hilaren aldean *Energiaren* prezioek % 0,9 egin dute gora, eta % 0,5 *Ekipo-ondasunen*ek. *Kontsumo-ondasunen* prezioak, oro har, % 0,2 igo dira, eta portaera desberdinak izan dituzte azpisektore bietan; izan ere, *Kontsumo-ondasun* ez-

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2020ko Uztaila

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Orrialdea: 2 (3)

iraunkorrenak. Ekipo-ondasunen prezioak ere igo dira, % 0,4 urte arteko terminoetan. Aitzitik, prezioak jaitsi egin dira Energiaren sektorean, % 16,3ko jaitsierarekin, eta Bitarteko ondasunenean, % 1,3koarekin.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62